



KULTURA-OHITUREN PANELA

8. DATU-BILKETAKO DATUEN ANALISIA



**Kulturaren
Euskal Behatokia**
Observatorio Vasco
de la Cultura



AURKIBIDEA

1.	Sarrera	3
2.	Aztergaia	4
3.	Emaitzak	5
3.1.	Aldaketa-ibilbideen deskribapena: Covid-19aren eragina	5
3.2.	Bloke koiunturala: Covid-aren osteko joerak kultura-ohitura digitaletan	22
3.3.	Aldaketaren pertzepzio subjektiboa: faktore soziologikoak bigarren mailan	35
4.	Azken iruzkina	40
	ERANSKINA	42
	• 1. Eranskina: Taula osagarriak	42
	• 2. Eranskina: Aldagaien kodetzea	47

Kulturaren Euskal Behatokiak, Ohituren Panelaren bidez, herritarren kultura-ohituren berri jasotzea eta eremu horretan sakontzea du xede. Ikerketa hori egiteko, lagin-unitate beraren jarraipena egiten da denbora jakin batean, jarraipen horrek aukera ematen baitu aldaketa-patroien ezaugarriak zehazteko lagungarri diren inguruabarrak indibidualki behatzeko.

Lagina 204 pertsonaz osatuta dago, eta denek ala denek parte-hartze kulturalaren gutxieneko atalase bat gainditzen dute. Lagina berau orekatzen duten hiru irizpidetatik abiatuz eraikitzen da, aldaera hauen arabera:

- Lurralde historikoa (Araba % 15,7; Gipuzkoa % 37,3; Bizkaia % 46,6; eta egun EAETik kanpo den pertsona bat).
- Sexua (emakumeak % 50; gizonak % 50).
- Adina (% 48,5, 1976tik 1987ra bitartean jaioak, eta, % 51,5, 1988tik 2000ra bitartean).

Zortzigarren datu-bilketa honetan, ordezte-tasa % 5,4koa izan da, eta oinarritzko irizpideei erreparatuz egin dira ordezkapenak. Landa-lana 2022ko urtarrilaren 24tik 2022ko martxoaren 1era bitartean egin zen. Horrenbestez, emaitzak 2021eko bigarren seihilekoari dagozkio.

Txostenaren gorputza hiru ataletan banatuta dago:

1. **Aldaketa-ibilbideak.** Partaidetza-mailen indizeak eraikita, hautemandako aldaketa-ibilbideak deskribatzea. Igoerako, mantentzeko edo jaitsierako ibilbideak daude parte-hartze motaren arabera (hartzailea, sortzailea edo digitala).
2. **Covid-19aren osteko joerak kultura-ohituretan.** Datu-bilketa honetan, kultura-ohituretako joerak atzemateko berariaz diseinatutako modulu bat sartu da berriro, inkestatutakoen ohitura pertsonalen eta gizarte mailako aldaketari buruz duten iritzia balorazioa batekin. Lehenengo blokea ohitura digitalei eta pertsonen aurreikusitako joerei buruzkoa da, eta, bigarrena, Covid-19ak oro har parte-hartze kulturean (ez soilik digitalean) epe laburrera eta luzera izango duen eraginari buruzkoa.
3. **Aldaketaren pertzepzio subjektiboa.** Atal hau inkestatutako pertsonen beren parte-hartze kulturala nola aldatu den azaltzeko ematen dituzten arrazoiei buruzkoa da, eta aurreko datu-bilketekin alderatzen da.

Aurreko datu-bilketan ikusi zen bezala, egungo testuinguruan Covid-19aren inpaktuaren ikuspegi baliotsua eskaintzen ari da Panela, bai eskariaren bai kultura-ohituren ikuspegitik. Kasu honetan, errekupeazioa nolakoa den ikusten hasteko aukera ematen du. Txostenaren bidez, Covid-19ak izaera eta profil demografiko desberdineko kultura-jardueretan duen eraginaren heterogeneotasuna aztertzen jarrai daiteke (funtsean, sexuaren eta adinaren arabera).

Gogoratu behar da alde aurretik ezarritako gutxieneko parte-hartze kultural maila gainditzen duten pertsonen osatzen dutela Panelaren lagina. Hau da, gutxienez ohiko kultura-publikotzat har daitezkeen pertsonak dira ikerketan parte hartu dutenak.

Emaitzak modu eskematikoan aurkezten dira, bloke bakoitzaren helburuak zehaztuz kasuan kasu: zer neurtzen den, nola neurtzen den, emaitzak eta interpretazio-iruzkina. Eranskinean aldagaien eta beren kodetzearen xehetasunak aurki daitezke.

Panelak parte-hartzearen ikuspegi multidimentsionala planteatzen du:

1. Lehenik, kontzepziorik klasikoenarekin bat eginez, parte-hartzea pasiboa edo hartzailea izan daiteke, eta, ikuspuntu horretan, eragilea kulturaren ikusle (hartzaile) da.
2. Bigarrenik, kulturen parte hartzeko modu aktiboak edo sortzaileak daude. Jarduera horietan, eragileak protagonismoa hartu eta bere gaitasunak garatzen ditu. Praktika artistiko amateurrek eta asoziazionismo kulturala dira parte hartzeko modu horren adibide.
3. Azkenik, aldaketa digitalak dimentsio berri bat ekarri du, baita parte-hartze sortzailea edo parte-hartze hartzailea ahalbidetu ere, betiere berezko aukerak eta mugak dituen bitarteko desberdin baten bidez. Horrela, parte-hartze digitalaz ere hitz egiten da.

Panelaren kasu zehatzerako, parte hartzeko modu bakoitza eraginkor bihurtzen duten inkestaren itemetan jartzen da abiapuntua (Eranskinean jasota daude):

- Parte-hartze hartzaileak kontsumo kultural pasiboari egiten dio erreferentzia, hainbat jarduera erlatiboren bertaratze eta maiztasun mailak oinarritzat hartuta. Horrela, horietako bakoitzaren intentsitatea neurtu eta bereizten da. Zehazki: irakurritako liburu kopurua eta zinemara, kontzertuetara, ikuskizunetara eta erakusketetara joandako aldi kopurua.
- Parte-hartze sortzaileak berariaz adierazten du amateur mailan praktika artistiko jakin bat egiten den ala ez. Zehazki, egiten diren praktika guztien batuketa bat da, hamahiru jarduera oinarri hartuta, besteak beste, margotzea, idaztea, argazkiak egitea, bideoak egitea... Horrenbestez, kasu honetan, aurrekoan ez bezala, ez da bereizketarik egiten jarduera bakoitza gauzatzeko intentsitate-mailaren arabera.
- Azkenik, parte-hartze digitalean, alderdi hartzailea baino ez da aintzakotzat hartzen. Hau da, hainbat jardueraren kontsumoa edo gauzatzeko digitala hartzen da kontuan (bitarteko digitalak erabiliz irakurtzea, filmak edo erakusketak ikustea, eta abar). Irakurketa errazteko, emaitzei buruzko atalean «parte-hartze digitala» terminoa erabili arren, «parte-hartze digital hartzaileaz» jardungo gara.

Panelaren ekarpen nagusia da gaitasuna duela **pertsonek denboran zehar parte-hartze kulturalaren mailetan dituzten aldaketak** azaltzeko, parte-hartze hartzailea, sortzailea edo digitala bereiziz egin ere. Ikerketa honen helburu nagusia da ulertzea zer faktore eta nola dauden lotuta parte-hartze mailetan izaten diren aldaketekin.

Edizio honetan, berriro ere, ezinbestekoa da kontuan hartzea azterketa-aldia zer testuingurutan egin den, beste behin ere Covid-19ak eta gaitzak eragindako murrizketek, nahiz eta arinagoak eta aldi baterakoak izan, erabat baldintzatu baitute guztia. Soilik testuinguru hori kontuan hartuta interpretatu ahal izango dira emaitzak behar bezala.

3.1. Aldaketa-ibilbideen deskribapena: ohituren berreskuratze-maila Covid-19aren ostean

Xedea

- Datu-bilketen arteko aldaketa-ibilbideak deskribatzea, Covid-19ak parte hartzeko moduetan eta taldekatzen dituzten jardueretan izandako eragin diferentziala kontuan hartuta.
- Sexuen eta adin-taldearen arteko aldeak ikustea (30 urtetik beherakoak eta 30 urtetik gorakoak).

Garrantzitsua da gogoratzea datuak interpretatzeko orduan kontuan hartu behar dela Panelak, dituen helburu nagusiak direla eta, ez duela lagin adierazgarri edo ausazko batekin lan egiten. Hori dela eta, emaitzak ezin dira demoskopikoki interpretatu, biztanleria osora estrapolatu daitezkeela pentsatuta. Izan ere, lagina gutxieneko ohiko kultura-kontsumo bat duten pertsonen soilik osatzen dute.

Horrenbestez, datuak ez dira era hertsian eta erabatekotzat jota interpretatu behar; aitzitik, joera gisa ulertu behar dira, betiere, gainera, lagina osatzen duten pertsonen profilaren barruan.

Zer neurtzen da?

Izandako aldaketen gaineko behaketa bat da, azken datu-bilketetako parte-hartze mailak alderatuz egindakoa.

Bost ibilbide neurtzen dira: igoera handia, igoera ertaina, mantentzea, jaitsiera ertaina eta jaitsiera handia. Hori hiru parte-hartze moduetako bakoitzarekin egin da.

Datu-bilketa pareen arabera bilakaera erakusten da. Hau da, bigarren datu-bilketako datuen artean sartu dira soilik lehen datu-bilketan ere parte hartu zuten pertsonenak, hirugarreneko datuen artean bigarrenetan ere parte hartu zutenenak, eta abar. Kontuan hartu beharra dago datu-bilketa bakoitzean ordezkapen-tasa bat dagoela: parte-hartzaile batzuek ikerketa uzten baitute. Horrela, informazio-galera optimizatzea lortzen da, datu-bilketa guzti-guztietan parte hartu duten pertsonen datuak bakarrik hartuko balira, informazio-galera areagotu bailitzateke.

Nola neurtzen da?

Aztergai den aldagaia hiru urratsetan eraikitzen da:


1. Lehenik, parte-hartze modu bakoitzerako eskala bat eratzen da, 0-1 bitartean aldatzen dena: 0 parte-hartze nuluaren maila da, eta 1 gehieneko parte-hartze maila. Norbanakoak 0 eta 1 zenbakien artean kokatzen dira, eskalak osatzen dituzten jardueretan duten parte-hartze mailaren arabera (2. eranskinean zehaztua).
2. Bigarrenik, datu-bilketen arteko konparazioa egiteko, norbanakoak eskala bakoitzean (hartzailea, sortzailea, digitala) eskuratutako puntuazioari, aurreko datu-bilketan eskuratutako puntuazioa kentzen zaio.

- Hirugarren urratsean, estatistikaren ikuspuntua jorratzen da, eta aldagai kuantitatibo jarraitu bat jaso. Aldagai hori bost kategoriatan haurkatzen da, eta, hartara, kategoriaren arabera aldagai kualitatibo bat sortzen da: igoera handia, igoera ertaina, mantentzea, jaitsiera ertaina eta jaitsiera handia. Kategoriatan bakoitza definitzeko erabilgaitako irizpidea orri-oinan azaltzen da¹.

Emaizak eta eztabaida

1. grafikoan ikus daitekeenez (lerro lila), Covid-19ak parte-hartze kulturalaren bilakaera normalean erabateko etena ekarri zuen; parte-hartze moduen arabera desberdintasunak egon arren, guztien batura eginda parte-hartzearen beherakada islatzen du emaitzak.

1. grafiko. Parte-hartze mailen bilakaera bigarren eta zortzigarren datu-bilketen artean



Inpakturik gogorrena parte-hartze hartzaileko jarduerak jasan zuten, erdira baino gehiagora murriztu baitziren. Aitzitik, jarduera digitalen eta praktika artistiko amateurrek konpentsazio txiki bat eragin zuten.

Azken aldiko bilakaeran ikus daitekeenez, parte-hartze hartzaileko jardueretan susperraldia ematen hasi da, hori bai, oso txikia, pandemiaren aurreko mailetatik urrun baikaude oraindik. Aldiz, behera egin dute jarduera digitalen (pandemiaren aurreko azken datua baino zertxobait gorago mantentzen badira ere oraindik) eta praktika artistiko amateurrek (pandemiaren aurreko mailen azpitik eta guzti daude).

¹ Aldagai jarraitua kategorizatze erabilgaitako irizpidea sakabanaketa tipikoaren balioa da. Aldaketa handiak sakabanaketa tipikoaren tartetik kanpo daudenak dira. Handiak dispersio tipikoaren balioaren eta balio horren erdiaren artean daudenak dira. Mantentzea, 0 erreferentzia hartuta, dispersio tipikoaren erdia da. Sakabanaketa tipikoa 0'1 bada, -0'1 baino handiagoa den aldaketa oro handia izango da; era berean, +0'1 baino handiagoa den aldaketa oro ere handia izango da. -0'1 eta -0'05 arteko aldaketak, berriz, ertainak izango dira (gauza bera balio positiboen kasuan). Horrenbestez, mantentzea definitzen duen urkila $\pm 0'05$ da, 0 erreferentzia hartuta.

Hori dela eta, oro har hartuta, parte-hartze kulturalaren mailak ez du oraindik hobekuntzarik erakusten, batuketan eta aldean jokoa eta moduen arteko konpentsazioak tarteko.

Kontuan izan behar da inkesta ez zela konfinamendu gogorreko aldian egin, baizik eta konfinamendu gogor hori amaitu eta justu ostean. Horrela, behatutako bilakaerari erreparatuta, interpretatu behar da konfinamendu aldirik gogorrean egoera gerora ikusitako bera izan zela (zazpigarren datu-bilketa), baina joera are muturrekoagoekin: eragin negatiboa are handiagoa izan zen parte-hartze hartzailearentzat, eta zertxobait positiboagoa jardueren digital eta sortzailearentzat.


Horrenbestez, parte-hartze kulturalako modu desberdinak daudela kontuan hartuta, bakoitza bere aukera eta mugekin, bistakoa dirudi pandemiaren testuingurura egokitu eta kultura-jarduerari eusteko estrategiak egon direla.

Hala eta guztiz ere, datuek erakusten dute modu desberdinak ez direla inolaz ere gai ordezko baliokide gisa funtzionatzeko: egoera pandemikoa dela-eta, parte-hartze hartzailea izugarri murriztu zen (neurri handi batean jardueren kolektiboen eta presentzialek osatzen baitute), eta neurri oso txikian soilik konpentsatu zen jardueren digitalarekin (oso indibiduala eta etxeko esparruan garatua) eta sortzaileekin (azken horrek, kasu batzuetan, banakako eta etxeko inguruneetan praktikatzeko bideak ere eskaintzen ditu).

Zortzigarren datu-bilketari dagokionez, kontuan hartu behar da egoera pandemikoa kultura-agenda markatzen jarraitu duela (edukiera, mugikortasun eta ordutegi mugak...), eta ez dela normaltasuna erabat berreskuratu. Nolanahi ere, pandemiaren aurreko ohiko egoerara itzultzeko joera hautematen da, non parte-hartze digitala jada handitzen eta zentraltasuna irabazten ari zen.


Parte-hartze moduen pisutik guztien baturaren emaitza bereizteak izandako inpaktuak hobeto aztertzen laguntzen du (2. grafikoa).

2. grafikoa. **Parte-hartze kulturalaren modu bakoitzaren banaketa datu-bilketa bakoitzea (%)**




Sexuen araberako aldeak aztertuz gero (3. grafikoa), bilakaerak erakusten du, lehenik eta behin, gizonen emakumeek baino askoz gehiago murriztu zituztela jarduera hartzailerak, eta alde handiagoak daudela gizonen eta emakumeen artean zortzigarren datu-bilketan, seigarren datu-bilketarekin alderatuta (pandemiaren aurreko azkena). Jarduera sortzaileei dagokienez, seigarren eta zazpigarren datu-bilketen arteko jaitsiera antzekoa da bi sexuetan, eta zertxobait handiagoa emakumeetan. Azkenik, jarduera digitalen arloan, ikus daiteke zortzigarren datu-bilketan parekatze bat eman dela: gizonen parte-hartzea emakumeena baino gehiago igo da, eta neurri handiagoan mantendu da gainera.

3. grafikoa. **Parte-hartze kulturalaren maila modu bakoitzean, seigarren, zazpigarren eta zortzigarren datu-bilketetan eta sexuaren arabera (%)**



Bestalde, adinaren araberako begiradan (4. grafikoa), ikusten da jarduera hartzailerengan izandako inpaktua txikiagoa izan zela 30 urtetik gorakoen artean, eta, hala, abiatze-maila txikiagoa izan arren (seigarren datu-bilketa), errekupeazioa berdina izan da. Horregatik, zortzigarren datu-bilketan, parte-hartze hartzaileraren maila handiagoa da 30 urtetik gorakoen artean adingabeen artean baino. Jarduera sortzaileen kasuan ere iraulketa bat egon da: seigarren datu-bilketan 30 urtetik beherakoen parte-hartze maila handiagoa baldin baten, zortzigarrenean zertxobait txikiagoa izatera ere heldu da. Azkenik, jarduera digitalen arloan, 30 urtetik beherakoek parte-hartze maila altuagoak izaten zituzten aurretik ere, eta horrela jarraitzen dute (bi kasuetan seigarren datu-bilketakoak baino altuagoak dira, nahiz eta zazpigarren datu-bilketaren ondoren pixka bat jaitsi).


4. grafikoa. **Parte-hartze kulturalaren maila modu bakoitzean, seigarren, zazpigarren eta zortzigarren datu-bilketetan eta adinaren arabera (%)**



Parte-hartze hartzailea

Igoera handien (% 29) eta ertainen (% 22,3) batura, mantentzearekin batera (% 35,2), dira joera nagusiak jarduera hartzaileetan (5. grafikoa).

5. grafikoa. **Parte-hartze hartzailearen aldaketa-ibilbideak zazpigarren eta zortzigarren datu-bilketen artean (%)**



Jaitsierak fenomeno marjinalak dira datu-bilketa honetan, eta horrek jada gainditutako gutxieneko puntu batera iritsi izana adierazten du. Mantentzea oso joera garrantzitsua bada ere, igoerak dira azken boladako aldaketen erdiak baino gehiago. 1. eranskinetako taulan ikus daitekeenez, igoerarik handienak aurreko datu-bilketaren parte-hartze hartzaileko oso maila txikiak zituzten pertsonen dagozkie.

Igoera handiak ertainak baino gehiago dira, parte-hartze hartzaileak jasandako inpaktu handiaren adierazgarri. Azterketa egin zenean egoera oraindik ez zen guztiz normala eta murrizketa handiak zeuden indarrean, baina agerikoa da pertsona asko parte-hartze hartzailea ahalik eta gehien berreskuratzen saiatzen ari zirela jada. Hala eta guztiz ere, parte-hartzea partzialki soilik berreskuratu da, eta pertsona askok parte-hartze maila baxuari eutsi diote. Hurrengo datu-bilketetan, fokua igoeretan eta mantentzeetan jartzen jarraitu beharko da. Covid-19aren eraginak kultura-ohitura jakin batzuk derrigorrean galtzea ekarri du (edo/eta beste ohitura batzuk sortzea, kulturalak ez direnak), eta, ondorioz, berreskurapena galera baino askoz ere motelagoa izan daiteke.

Parte-hartze hartzailearen eskala osatzen duten praktiken berreskuratze-maila kontsultatuz gero, aldeak haute-maten dira arloen artean:

- Lehenik eta behin, azpimarratu behar da liburuaren irakurketa mantendu egin dela pandemiaren aurreko azken datu-bilketatik.
- Bigarrenik, erakusketetara eta liburutegietara egindako bisitak, gutxi gorabehera, pandemia aurrekoen % 78 inguru dira.
- Hirugarrenik, kontzertuetara eta zinemara joatea, praktika ohikoenetako bi, % 70 inguruko mailan dago gutxi gorabehera pandemia aurreko datuekin alderatuta.
- Azkenik, ikuskizunetara joatea da pandemiaren aurreko maila gutxien berreskuratu duen praktika seigarren datu-bilketaren alderatuta (% 60).

1. taula. **Parte-hartze hartzaileko jarduerak seigarren eta zortzigarren datu-bilketen artean eta errekupeazio-maila zortzigarren datu-bilketan seigarrena erreferentziazat hartuta (azken sei hilabeteetan jardura gutxienez behin egin izana kontabilizatzen da)**

	6. datu-bilketa	7. datu-bilketa	8. datu-bilketa	8. datu-bilketako maila, 6a. erreferentziazat hartuta (8. datu-bilketa/6. datu-bilketa)*100]
Kontzertuak	75,3	18,1	50,8	67,5
Liburuak	76,8	75,3	74,1	96,5
Zinema	79,4	33	56,5	71,2
Ikuskizunak	57,7	25,8	34,7	60,1
Erakusketak	54,6	29,4	42,5	77,8
Liburutegiak	53,6	36,1	42	78,4

2. taulak alde handiak erakusten ditu errekupeazio-mailetan emakumeen eta gizonen artean praktika jakin batzuetan. Kontuan hartu behar da emakumeen artean pandemiaren eragina txikiagoa izan zela, eta, oro har, aurreko mailak gehiago berreskuratu dituztela. Hori bereziki baliagarria da kontzertu, zinema eta erakusketetara joateari dagokionez (praktika horiek gizonek baino gehiago berreskuratu dituzte). Ikuskizunetara eta liburutegietara joateari dagokionez, aldiz, errekupeazioa ez da gizonezkoetan bezain handia, aldeak ez diren arren kontrako kasuetan bezain handiak.

2. taula. Parte-hartze hartzaileko jarduerak seigarren eta zortzigarren datu-bilketen artean eta errekonparazio-maila zortzigarren datu-bilketan seigarrena erreferentziazat hartuta, gizonen eta emakumeen arteko bereizketa eginda (azken sei hilabeteetan jarduera gutxienez behin egin izana kontabilizatzen da)

	Emakumezkoak			Gizonezkoak			8. datu-bilketako maila, 6a. erreferentziazat hartuta (8. datu-bilketa/6. datu-bilketa)*100]	
	6. datu-bilketa	7. datu-bilketa	8. datu-bilketa	6. datu-bilketa	7. datu-bilketa	8. datu-bilketa	Emakumezkoak	Gizonezkoak
Kontzertuak	72,2	23,7	57,3	78,4	13,4	44,3	79,4	56,5
Liburuak	86,6	84,5	82,3	67	66	66	95,0	98,5
Zinema	81,4	37,1	58,3	77,3	28,9	39,6	71,6	51,2
Ikuskizunak	68	34	39,6	47,4	24,7	29,9	58,2	63,1
Erakusketak	52,6	34	45,8	56,7	24,7	39,2	87,1	69,1
Liburutegiak	64,9	46,4	49	42,3	25,8	35,1	75,5	83,0

Adinaren arabera azterketa batek erakusten du ikuskizunetara, liburutegietara eta kontzertuetara joateko ohitura 30 urtetik gorako pertsonen artean berreskuratu dela neurri handiagoan. Zinemara eta erakusketara joateari dagokionez, susperraldia zertxobait handiagoa da 30 urtetik beherakoaren artean, baina aldeak ez dira hain nabarmenak. Irakurketari dagokionez, ohitura galera oso txiki bat hauteman da 30 urtetik beherakoaren artean.


3. taula. Parte-hartze hartzaileko jarduerak seigarren eta zortzigarren datu-bilketen artean eta aldearen ehunekoa adinaren arabera (azken sei hilabeteetan jarduera gutxienez behin egin izana kontabilizatzen da)

	30 urtetik beherakoak			30 urtetik gorakoak			8. datu-bilketako maila, 6a. erreferentziazat hartuta (8. datu-bilketa/6. datu-bilketa)*100]	
	6. datu-bilketa	7. datu-bilketa	8. datu-bilketa	6. datu-bilketa	7. datu-bilketa	8. datu-bilketa	<30	>30
Kontzertuak	78,9	18,2	49,3	72,1	18,8	51,7	%62,5	%71,7
Liburuak	75,6	72,7	69,9	77,9	76,9	76,7	%92,5	%98,5
Zinema	87,8	37,7	67,1	72,1	29,9	50	%76,4	%69,3
Ikuskizunak	52,2	28,6	26	62,5	23,9	40	%49,8	%64,0
Erakusketak	53,3	27,3	42,5	55,8	30,8	42,5	%79,7	%76,2
Liburutegiak	54,4	32,5	32,9	52,9	38,5	47,5	%60,5	%89,8

Parte-hartze sortzailea

Parte-hartze sortzailearen ohiko joera partaidetza mantentzearena da, baina oraingo honetan jaitsierek pisu handiagoa izan dute igoerek baino (% 27,5 eta % 13,5, hurrenez hurren).

6. grafikoa. **Parte-hartze sortzailearen aldaketa-ibilbideak* zazpigarren eta zortzigarren datu-bilketen artean (%)**



* Parte-hartze sortzailearen kasuan, mantentzeak egiten diren jardueren kopurua ez aldatzea esan nahi du, aldaketa ertainak jarduera bakarrari eragiten dio eta aldaketa handiak bi jarduerari edo gehiagori.

Gogoratu behar da aurreko datu-bilketan, pandemiak are murrizketa handiagoak eragin zituen testuinguru batean, praktika eta praktikatzaile berrien kopuruen areagotzea hauteman zela. 2. taula osagarrian ikus daitekeenez (1. eranskina), orain jarduerarik egiten ez duten pertsonen kopurua da gehien hazi dena. Jarduera bat egiten duten pertsonen kopurua zertxobait hazi bada ere, bi jarduera edo gehiago egiten dituztenen kolektiboa ia erdira jaitsi da, % 23,7tik % 12,4ra igaroz.

2.1 eta 2.2 taula osagarriak aztertuz (1. eranskina), honako hauek nabarmentzen dira sexuaren eta adinaren araberako aldeei dagokienez:

- Gizonen artean, jarduerarik egiten ez dutenak (% 66) aurreko datu-bilketatik % 14,5 areagotu dira, eta, pandemiaren aurreko datu-bilketatik, % 5,2.
- Emakumeen artean, berriz, pandemiaren aurreko datu-bilketarekin alderatuta ez zen praktikatzaile berririk izan; orain, gainera, ez-praktikatzaileak % 3,7 hazi dira. Emakumeen artean, adierazgarriena da jarduera bakarra egiten dutenen kopuruak gora egin duela, eta, aldiz, bi edo gehiago egiten dituztenen kopuruak behera egin duela. Gizonen artean, jaitsierak daude kategorია guztietan, eta ez-praktikatzaileen kopuruak bakarrik egin du gora.
- 30 urtetik beherakoen artean, neurri handian hazi dira ez-praktikatzaileak, datu-bilketaren aurretik baino neurri askoz handiagoan hazi ere (seigarren datu-bilketan % 54,4 izatetik zazpigarrenean % 42,9 izatera eta gaur egun % 67,1 izatera igaro dira). Aldiz, ez-praktikatzaileen kopurua mantendu egin da 30 urtetik gorakoen artean.

- 30 urtetik gorakoan artean, ez-praktikatzailen kopurua aldatu ez den arren, bada datu aipagarri bat: jarduera bakarra egiten dutenen kolektiboak gora egin du, baina, aldiz, bi jarduera edo gehiago egiten dituztenen kopuruak behera.

Laburbilduz, bi joera nagusi daude: praktikatzailen galera gizonen eta 30 urtetik beherakoan artean, eta parte-hartze sortzailearen intentsitate galera emakumeen eta 30 urtetik gorakoan artean.

Interes galera orokortu horrek, mota desberdinetakoa izan arren, praktika artistikoen kultura-ohituretan duten garrantzia apur bat galtzea eragin du, ez bakarrik pandemian bertan egindako aurreko datu-bilketarekin alderatuta, baita aurrekoekin alderatuta ere. Covid-19aren inpaktuak praktika horiek egitea erraztu zuen, baina, datuek erakusten dutenez, baliteke normaltasunera itzultzen ari garen heinean, praktikok atzera egiten hasi izana. Beharrezkoa izango da hurrengo datu-bilketara arte itxarotea, ziur aski dagoeneko murrizketa aipagarririk gabe, egoera nola egonkortzen den ikusteko.

Azkenik, interesgarria da datu-bilketa bakoitzeko praktika ohikoenak eta denboran zehar duten portaera behatzea.

4. eta 5. taula osagarrietan (1. eranskina), adinaren eta sexuaren arabera ezberdintasunak ikus daitezke.


Espero zitekeen bezala, jaitzierak orokorrak dira, eta, errekupeazioa, desorekatua.

4. taula. Parte-hartze aktiboko jarduera ohikoenak seigarren eta zortzigarren datu-bilketen artean, eta seigarren datu-bilketako pandemiaren aurreko mailaren errekupeazio-portzentajea (ehunekoak azken sei hilabeteetan jarduera gutxienez behin egin izana adierazten du)				
	6. datu-bilketa	7. datu-bilketa	8. datu-bilketa	8. datu-bilketako maila, 6a. erreferentziatzat hartuta (8. datu-bilketa/6. datu-bilketa)*100]
Musika-tresna bat jotzea	11,9	14,4	9,8	%82,4
Idaztea	12,4	11,9	9,8	%79,0
Dantza eta baleta	6,2	7,7	4,7	%75,8
Argazkiak egitea (mintegiak, ikastaroak)	10,8	16,5	5,2	%48,1
Margotzea edo marraztea	3,6	11,3	6,7	%186,1
Beste arte plastiko batzuk	6,7	7,2	4,1	%61,2
Bideoak egitea (mintegiak, ikastaroak)	5,2	12,4	3,6	%69,2
Beste ikus-entzunezko batzuk (diseinu grafikoa, webak, eta abar)	6,2	6,7	2,6	% 41,9

Argazkiak eta bideoak egiteko ohitura asko handitu zela ikusi zen zazpigarren datu-bilketan, pandemia bete-betean eta murrizketa handiak indarrean zirela egindakoa; aldiz, orain jarduerok seigarren datu-bilketan baino gutxiago egiten dira. Praktika hedatuenetako bi, idazketa eta musika, % 80 inguruan berreskuratu dira gutxi gorabehera.

Azkenik, praktika amateurrekin gertatzen denaren aurka, jarduera asoziatiboak gorakada garrantzitsua izan du, seigarren datu-bilketako mailen gainetik kokatuz eta inoizko erregistro historikorik onena markatuz (7. grafikoa).

7. grafikoa. **Elkarte batean edo gehiagotan izandako parte-hartzearen bilakaera (%)**




Pandemian zehar elkarte askok ezinbestean jasan behar izan zuten hibernazio-aldiaren ondoren, badirudi jardura asoziatiboa berreskuratzen ari dela berriz ere. Datu horrek pandemiak berak zein derrigor jasandako etenak eragindako bestelako zailtasunak islatzen ez baditu ere, bistakoa da indarberritze bat erakusten duela.

Parte-hartze digitala

Parte-hartze digitalak gora egin du aurreko datu-bilketetan, gehieneko puntu bat ezarritz zazpigarrenean, pandemia bete-betean eta murrizketa handiak indarrean zirela egindakoa. Zortzigarren datu-bilketa honetan, apur bat jaitsi da, baina pandemiaren aurreko azken datu-bilketaren gainetik dago oraindik ere.

8. grafikoa. **Parte-hartze digitalaren aldaketa-ibilbideak 7. eta 8. datu-bilketen artean (%)**



Aurreko datu-bilketarekin alderaketa eginda, ibilbide gehienek mantentzeak (% 47,2) adierazten dituzte, eta jaitsierak igoerak baino ohikoagoak dira (hurrenez hurren, % 30,6 eta % 22,3).

Jaitsiera handienak, ohi bezala, aurreko datu-bilketetan batezbestekoaren oso gainetik zeuden pertsonen dagozkie; aldiz, igoerak batezbestekoaren azpitik zeudenei dagozkie (1. eranskineko 3. taula).

Parte-hartze digitalaren eskala osatzen duten praktiken azken aldiko bilakaerari buruzko 5. taulari erreparatuta, lehenik eta behin, seigarren datu-bilketatik (aurrekoa) eta zazpigarren eta zortzigarrenean zehar mantendu diren oso hedatutako praktiken multzo bat ikus daiteke (filmak edo telesailak ikustea eta musika entzun edo deskargatzea). Liburu digitalen irakurketa edo deskarga ere mantendu egin da, baina kasu honetan ez da hain praktika zabaldua. Bigarrenik, gorakada nabarmenak izan zituzten hiru praktiken multzo bat ikus daiteke: kontzertuak, ikuskizunak eta erakusketak ikustea. Hori bai, hiru jarduera horiek izan bazituzten ere igoera nagusiak, soilik ikuskizunen eta erakusketen kasuan mantendu dira. Kontzertuak ikustea, aldiz, pandemiaren aurreko ehunekora itzuli da. Azkenik, azpimarratu behar da liburutegirako sarbide digitala murriztu egin dela Panelean parte hartzen dutenen artean.

5. taula. Parte-hartze digitaleko jarduera ohikoenak seigarren eta zortzigarren datu-bilketen artean, eta azken bi datu-bilketen arteko aldearen ehunekoa (balioak azken sei hilabeteetan jardura gutxienez behin egin izana adierazten du)

	6. datu-bilketa	7. datu-bilketa	8. datu-bilketa	8. datu-bilketako maila, 6a. erreferentziatzat hartuta (8. datu-bilketa/6. datu-bilketa)*100]
Filmak, telesailak edo bideoak ikustea	95,4	97,4	98,4	103,1
Musika entzun edo deskargatzea	81,3	77,4	78,1	96,1
Liburuak irakurri edo deskargatzea	18,6	16	17,3	93,0
Liburutegian sartzea	25,3	20,9	19,7	77,9
Kontzertuak ikustea	31,2	42	30,6	98,1
Ikuskizunak ikustea	10,3	19,3	18	174,8
Erakusketak ikustea	2,1	4,1	5,7	271,4

Oharra: 6. eta 7. taula osagarrietan (1. eranskina), adinaren eta sexuaren arabera ikus daitezke ehunekoak.


Egoeraren arabera blokearen analisiaren atalean, sakonago aztertzen dira ohitura digitalen aldaketak eta joerak. Jarraian, baina, zenbait praktikari lotutako emaitza xehatuak ere aurkezten dira:

- Ikus-entzunezko edukietan sartzeko kanalak.
- Musika entzuteko euskarriak eta kanalak.
- Liburutara sartzeko kanalak.
- Ikuskizunak online ikusteko arrazoiak.


Covid-19ak eta konfinamenduak *streaming*-a hobesteko hautua pixka bat gehiago indartu zuten eta joera hori egun ere mantentzen da, oso modu nabarmenean gainera; edukiak *streaming* bidez ikusten dituztenak % 96,8 dira eta soilik % 3,2 deskargatzen dituztenak (9. grafikoa).

Gainera, doako sarrerak behera egiten jarraitzen du, eta ikus-entzunezko edukien ordainketak sendotzen (10. grafikoa). Bereziki, noizbehinkako ordainketak jarraitzen du goranzko joeran (% 26,6), ohiko ordainketak pixka bat behera egin duen bitartean (% 60,6). Hala, noizbehinkako eta ohiko ordainketak % 87,2 dira guztira.

9. grafikoa. **Filmak, telesailak eta bideoak eskuratzeko kanalen bilakaera 2. eta 8. datu-bilketen artean (%)**




10. grafikoa. **Filmak, telesailak, bideoak ikusteko ordaindu edo harpidetzearen maiztasunaren bilakaera 2. eta 8. datu-bilketen artean (%)**




Musikan ere, *streaming*-ak bere hazkundera eta zentraltasuna sendotu ditu (11. grafikoa). Kasu honetan, aldiz, doako sarbideak du lehentasuna (% 49,5era iristen da, datu-bilketa guztietako handiena); ordainpeko sarbidea, berriz, % 21,4koa da. Irratia, pandemiaren aurreko datu-bilketan izandako beherakadaren ondoren, mantendu egiten da (% 15,1); euskarri fisikoa erabiltzen dutenak, berriz, % 6,8 dira. Doako deskarga jotzen dutenak ere % 6,8 dira; azkenik, ordainpeko deskargak oso gutxi dira (% 0,5).

11. grafikoa. **Musika entzuteko bitartekoaren bilakaera 2. eta 8. datu-bilketen artean (%)**



Musika entzuteko erabilitako gailuari dagokionez, mugikorrak aurrera egiten jarraitzen du bitarteko nagusi gisa (% 59,1). Bigarren tokian autoko irratiak dago (% 17,1, hiru puntuko jaitsiera jasan eta gero), eta, jarraian, etxekoa (% 11,4). Musika entzuteko ordenagailuaren erabilera puntu bat egin du behera (% 8,8), eta oraindik gutxiago dira tabletak (% 2,1) eta MP3 irakurgailuak edo antzekoak erabiltzen dituztenak (% 1,6).


12. grafikoa. **Musika entzuteko euskarriaren bilakaera 2. eta 8. datu-bilketen artean (%)**



Irakurtzeko euskarriei dagokionez, paperaren nagusitasuna ia aldaketarik gabe mantendu da datu-bilketa guztietan (% 77 eta % 79 artean); eta deskargak ere bere horretan mantendu dira, doakoak direlarik nagusi (% 14,9 dira doakoak eta % 8,1 ordaindutakoak).

Horrenbestez, ondorioztatu daiteke bai formatuak bai irakurketa-mailak oso sendoak direla eta aldagaitz mantendu direla Covid-19ak eragindako aldaketak gorabehera.

13. grafikoa. Irakurtzeko paperezko euskarriaren eta euskarri digitalaren bilakaera 2. eta 8. datu-bilketen artean (%)



Azkenik, ikuskizunak online ikusteko arrazoiak aztertzerakoan (14. grafikoa), pandemiaren aurreko zenbait zioen pisuaren nolabaiteko itzulera ikusten da. Pandemiaren eraginak oraindik pisu handia izaten jarraitzen badu ere –«Beste arrazoi batzuk» kategorian dago jasota (2,8ko puntuazioa)–, aurreko datu-bilketarekin alderatuta arrazoiak banatuago daude.

Adierazitako arrazoi guztiek nolabaiteko lotura dute elkarren artean, eta online formatuak prezioari, joan-etorriari eta denborari dagokienez eskaintzen dituen aukerei buruzkoak dira:


- Etxetik irten gabe ikusi ahal izatea (2,71ko puntuazioa).
- Ikuskizuna hartzen den lekuarekiko urruntasun geografikoa (2,69ko puntuazioa).
- Prezioa («Garestia zen joatea», 2,63ko puntuazioa).
- Denbora erabilgarria (2,63ko puntuazioa).

Online bistaratzeak eskaintzen dituen beste aukera batzuk, ordea, gutxiago baloratzen dira, hala nola ikuskizun zaharrak berreskuratzea, material argitaragabea eskuratzea edo obran sakontzea.

Ikuskizun zaharrak eskuragarri izateko aukera, adibidez, asko baloratu zen aurreko datu-bilketan, murrizketa handiagoak indarrean zirela egindakoa.

Interesgarria da kontuan hartzea, halaber, lehen eskuragarri zegoen denbora zela ikuskizunetara online formatuan sartzeko arrazoi nagusia, eta, orain, nolabaiteko garrantzia berreskuratu duela, baina aurreko mailara itzuli gabe.

14. grafikoa. **Zuzeneko online ikuskizunetara sartzeko arrazoiak konparazioa, Covidaren aurreko datu-bilketen eta 7. eta 8. datu-bilketen artean**



Ondorioak

Covid-19aren bat-bateko agerpenak parte-hartze kulturean izan zuen eragin sakonaren ondoren (Panelaren zazpigarren datu-bilketan jasotako inpaktua), **berreskurapena partziala izan da soilik**, aldi-aldi indarrean izandako murrizketek guztiz markatu baitute. Covid-19ak eragindako hasierako kolpea negatiboa izan zen jarduera hartzaile jakin batzuentzat, eta, aldiz, eragin onuragarria izan zuen praktika artistiko amateurrek egiteko eta kultura-jarduera digitalen kasuan. **Azken datu-bilketan, praktika artistiko amateurrek eta digitalek atzera egin dutela egiaztatu da, nahiz eta azken horiek pandemiaren aurreko mailatik gora egon.**

Azpiemarratzekoa da pandemia baino lehen ere kultura-jarduera digitalek gora egin zutela. Hortaz, esan daiteke datuek egiaztatu dutela Covid-19ak aurretik mamitzen ari zen joera bat finkatu duela (hala ere, interesgarria izango da hurrengo datu-bilketei erreparatzea jakiteko ea joera hori areagotzeko tarterik dagoen edo parte-hartze digitalak goia jo duen). Ildo horretan, zenbait arloekin lotutako joera digitalak sendotu egin dira:

- **Streaming-aren (% 96,8) eta ikus-entzunezkoak ikusteko ordaintzearen (% 87,2) lehenespena ia erabatekoa da.**
- **Streaming-a sendotzea musikan**, baina **bereziki doakoa** (% 49,5) eta ez hainbeste ordainpekoa (% 21,4), baita **mugikorra erreproduzio-euskarri nagusi gisa hartzen ari den gero eta pisu handiagoa** ere.
- **Papera irakurketa euskarri gisa mantentzea**, pandemia gorabehera, euskarri digitalen aldeko hautuak ez duelarik aldaketarik izan (% 22 eta % 23 artean).

Parte-hartze hartzaileari dagokionez, nabarmentzekoa da, lehenik eta behin, **irakurketa ohiturak ez direla aldatu**; besteak beste, Covid-19ak eragindako murrizketek ez dutelako eragin zuzenik praktika hori egiteko baldintzetan. Ildo horretan, nabarmentzekoa da ez dela aldaketa negatiborik ikusten, baina ezta positiborik ere. Hori bai, gogoan izan behar da beti Paneleko lagina parte-hartze kultureko gutxieneko mailak dituzten pertsonen osatzen dutela.

Ikerlaneko parte-hartze hartzailearen eskala osatzen duten gainerako praktiken artean, **hiru bloke bereizten dira Covid-19aren aurreko balioen berreskuratze-mailaren arabera**:

- **Erakusketetara eta liburutegietara joatea** dira aurreko mailak gehien berreskuratzen dituzten jarduerak (% 78 inguru), baina oraindik pandemia aurreko datuetatik urrun daude.
- **Kontzertuetara eta zinemetara joateko ohitura** % 70 inguruan berreskuratu da gutxi gorabehera.
- **Ikuskizunetara joateko ohitura** da aurreko mailak gutxien berreskuratu dituenak (% 60).

Azkenik, **parte-hartze sortzaileari** dagokionez, batez ere ikusi da **ez-praktikatzailen kopuruak gora egin duela**: ez bakarrik aurreko datu-bilketarekin alderatuta, baita Covid-19aren aurreko bilketarekin alderatuta ere. Era berean, intentsitate-galera eman da egindako jarduera desberdin kopuruan: zazpigarren datu-bilketan areagotze bat hauteman ondoren, azken datu-bilketak beherakada nabarmena islatu du, pandemia aurrekoak baino kopuru txikiagoetara jaitsiz. Ildo horretan, Covid-19ak eragindako salbuespen egoera bat eman zela antzeman da (kasu honetan aldeko suertatu zena), eta, uneotan, erresumin handiagoa dakarrela.

3.2. Egoeraren arabera blokea: Covid-19aren osteko joerak kultura-ohituretan

Xedea

- Covid-19ak kultura-ohitura digitalen zein ez-digitalen praktikan nola eragin duen identifikatzea.
- Etorkizuneko joera digitalak aztertzea, inkestatutako pertsonen iritzia kontuan hartuta, sexuaren eta adin-taldearen arteko bereizketa eginda (30 urtetik beherakoak eta 30 urtetik gorakoak).

Garrantzitsua da gogoratzea datuak interpretatzeko orduan kontuan hartu behar dela Panelak, dituen helburu nagusiak direla eta, ez duela lagin adierazgarri edo ausazko batekin lan egiten. Hori dela eta, emaitzak ezin dira demoskopikoki interpretatu, biztanleria osora estrapolatu daitezkeela pentsatuta. Izan ere, lagina gutxieneko ohiko kultura-kontsumo bat duten pertsonen soilik osatzen dute.

Horrenbestez, datuak ez dira era hertsian eta erabatekotzat jota interpretatu behar; aitzitik, joera gisa ulertu behar dira, betiere, gainera, lagina osatzen duten pertsonen profilaren barruan.

Zer neurtzen da?

Galdera-eremuek, dimentsio digitalean, praktika hauei erantzuten diete:

- Internet bidez kontzertuetara, antzerki-emanaldietara edo zuzeneko beste obra batzuetara sartzea.
- Ordainpeko harpidetzen bidez eduki kultureko plataformetara sartzea (musika, ikus-entzunezkoak eta liburuak bereiziz).
- Sare sozialen bidez, hitzaldietara, tutorialetara, hitzaldietara edo antzeko ikaskuntza-praktiketara sartzea.
- Erakusketa, museo, ondare-guneetara... bisita birtualak egitea.
- Euskarri fisikoko kultura-produktuen erosketa digitalak egitea.
- Norberaren sorkuntzak sare sozialetan zabaltzea, edozein formatutan (*storie*-ak, zuzenekoak, postak...).
- Artista profesionalen sormenezko edukien trukea sare sozialetan.

Kasu horietan, lehenik eta behin, honako baldintza hauek betetzen dituzten pertsonen kopurua neurtzen da:

- Pandemia hasi aurreko maila berean mantentzen dute praktika.
- Pandemia hasi eta gero hasi dira praktika egiten.
- Praktikaren gauzatze intentsitatea indartu dute.
- Pandemian zehar utzi diote praktika egiteari.

Bigarrenik, elkarrizketatuaren kasua edozein dela ere, etorkizunean gizartean ohiko praktikak izango ote diren galdetzen zaio, honako aukera hauek kontuan hartuta:

- Uste dut dagoeneko gizartean ohiko jarduera dela.
- Etorkizunean ez da ohiko jarduera izango, konfinamendua dela eta emandako ezohiko jarduera izan da.
- Etorkizunean ohiko jarduera izango da.

Azkenik, digitaletik haratago begiratzuz, pandemiak bere ohituretan izan duen eragina nola baloratzen duen galdetu zaio elkarrizketatu bakoitzari, inpaktua epe motzera eta luzera definitzeko aukera hauek emanez: ezer ez, gutxi, nahiko edo asko. Honako hauek hartu dira kontuan

- Kultura-produktu fisikoak erostea.
- Zuzeneko arte ekitaldietara joatea.
- Museoetara, ondare-guneetara, erakusketetara edo liburutegietara joatea.
- Zinemara joatea.
- Parte-hartze sortzailea.
- Kulturaren kontsumo digitala.
- Sareetan kultura-edukiak trukatzeko.
- Elkarrekin parte-hartzea.

Nola neurtzen da?

Ohitura digitalei buruzko galderen kasuan (gauzatzea eta joerei buruzko iritzia), aukera guztiekiko ehunekoak kalkulatu dira.

Kultura-ohitura desberdinetako epe laburreko eta luzeko inpaktuari buruzko galderen kasuan, batez bestekoa 1 etik (ezer ez) 4ra (asko) bitarteko eskalan kalkulatu da.


Emaitzak eta eztabaida

16. eta 17. grafikoetan, hurrenez hurren, pandemia garaiko kultura-praktika digitalak eta inkestatutako pertsonen espero daitezkeen joerei buruz duten iritzia jasotzen dira. Pandemiaren testuinguruan izandako bi datu-bilketetako datuak alderatzen dira.

Bi datu-bilketa horiek alderatuz gero, gertakari nabarmenetako bat da mantentzea oso garrantzitsua dela, eta praktika digitalik egiten ez dutela adierazten duten pertsonen kopuruak gora egin arren (alor guztietan ikusten da zortzigarren datu-bilketan zarpigarrenean baino handiagoa dela «Ez» kategoriaren proportzioa), zati esanguratsu bat praktikatzaileriak edo ohitura areagotu duten pertsonak direla.

Heterogeneotasun handia dagoen arren, batez beste mantentzea % 38,4koa da, intentsifikazioa % 17,9koa, praktikatzaileriak % 12,6 dira eta ez-praktikatzaileriak % 31,1 (15. grafikoa).

15. grafikoa. **Pandemian izandako praktika digitalekiko portaeraren batez bestekoa**
8. datu-bilketan (%)



Bi datu-bilketak alderatuz gero, ikusten da gehien indartu den praktika (intentsifikazioagatik eta praktikatzaile berriengatik) hitzaldiak, tutoretzak eta hitzaldiak sare sozialen bidez eskuratzereana izan dela.

Pandemian gehien indartu zen praktika ordainpeko harpidetzen bidez eduki kulturalako plataformetara sartzearena izan zen, batez ere ikus-entzunezkoen arlokoak. Oraingo datu-bilketan ere joera hori nabarmenki indartzen ari dela egiaztatu da.

6. taula. Plataformetarako ordainketa-harpidetzak handitu dituzten pertsonen ehunekoa, motaren arabera		
	Erabilera handitzea edo erabilera berria	
	7. datu-bilketa	8. datu-bilketa
Ikus-entzunezkoak	%37,3	%29
Musika	%13,7	%16,1
Liburuak	%2,9	%4,1


Praktika horiek ohiko bihurtuko diren ala ez uste duten galdetzean, lehenik eta behin, nabarmendu behar da praktika gehienetan jada ohikoak direla edo hala izango direla irizten dutela (17. grafikoa), eta aurreko datu-bilketan identifikatutako patroiei eutsi zaiela. Hala, bi kasutan soilik daude gertatutakoa ezohikoa izan dela uste duten pertsonen ehuneko handiak. Bi kasu horietan, gainera, etorkizunean ohikoak izango direla uste duten pertsonen ehuneko bat ere badago; beraz, agerikoa da iritzi desberdinak daudela auzion inguruan.

7. taula. **Jarduera digitalak, aurreikusitako joeraren arabera**


«Ohikoa da dagoeneko» eta «Ohikoa izango da» erantzunen ehuneko esanguratsuak	«Salbuespena izan da» erantzunaren ehuneko esanguratsuak
▪ Ordainpeko harpidetzen bidez eduki kultureko plataformetara sartzea. ▪ Sare sozialen bidez, hitzaldietara, tutorialetara, hitzaldietara edo antzeko ikaskuntza-praktiketara sartzea. ▪ Norberaren sorkuntzak sare sozialetan zabaltzea, edozein formatutan (storie-ak, zuzenekoak, postak...). ▪ Euskarri fisikoko kultura-produktuen erosketak digitalak egitea. ▪ Artista profesionalen sormenezko edukien trukea sare sozialetan. ▪ Podcastak entzutea.	▪ Internet bidez kontzertuetara, antzerki-emanaldietara edo zuzeneko beste obra batzuetara sartzea. ▪ Erakusketa, museo, ondare-guneetara... bisita birtualak egitea.

Bigarrenik, nabarmentzekoa da praktika guztietan transbertsalki hazi dela ez dakitenen edo erantzuten ez dutenen ehunekoa, horrek eguneroko bizitza noiz normalduko den gaineko ziurgabetasuna handitu egin dela adieraz baitezake. Batez beste, pertsona horiek % 9,3 ziren lehen, eta, orain, % 13,5 dira.

16. grafikoa. **Praktika digitalen gauzatzea pandemian (%)**



17. grafikoa. **Gizarte-mailako kultura-ohituren joerei buruzko iritzia (%)**



Zuzeneko ikuskizunetarako Internet bidezko sarbideari dagokionez, interesgarria da azpimarratzea oraindik ere praktikatzailer berrien eta praktika areagotu duten pertsonen proportzio esanguratsuak daudela hautematen dela, eta, aldi berean, antzekoak direla dagoeneko ohiko jardura dela uste dutenen eta ohiz kanpoko zerbait dela uste dutenen ehunekoak. Azken dinamika hori, adierazi bezala, erakusketa eta museoetara egindako bisiten kasuan ere ematen da. Bi praktika horien izaera presentziala oso markatua da, eta iritzi desberdintasun horrek agerian utz dezake pertsona batzuentzat bestelako eraldaketarik gabe soilik praktika digitalizatzen duten esperientziek izan dezaketen interes falta.

Bestalde, nabarmentzekoa da bi datu-bilketen artean gora egin duela sare sozialetan sorkuntza propioak partekatzen ez dituztela adierazten duten pertsonen kopuruak. Kontuan izan behar da, zortzigarren datu-bilketan oraindik murrizketak indarrean egon badira ere, zazpigarrenean askoz gogorragoak zirela. Hala eta guztiz ere, joerei buruzko iritziek praktika horren normalizazio hedatuagoa adierazten dute, aurreko datu-bilketan baino gutxiago egiten bada ere, ohikotzat hartzen baita.


Azken datu-bilketan, podcastak entzutearen praktika gehitu da, eta datuek adierazten dute praktikatzailer berri asko daudela, praktikaren berritasuna eta arrakasta gero eta handiagoa islatuz. Era berean, pertsonen ehuneko handi batek uste du dagoeneko ohikoa dela, eta etorkizunean hala izango dela uste dutenen kopurua ere % 34koa dela kontuan izanik, podcastena egungo joera nabarmenetako bat dela agerikoa da.

Kasu guztietan, datuek erakusten dute emakumeak direla praktika digitalekin gehien esperimentatzen dutenak, eta, hala, praktikatzailer berrien eta ohitura areagotzen duten pertsonen proportzioa handiagoa da kasu guztietan emakumeen artean (18. grafikoa).

Aldiz, adinari dagokionez (19. grafikoa), kasu batzuetan 30 urtetik beherakoak dira aldaketa zuzentzen dutenak, eta, besteetan, nagusiak. 30 urtetik beherakoak gehiago dira eduki kultureko plataformetara sartzeko praktikan, sare sozialen bidezko prestakuntzan eta sorkuntza propioen trukean. 30 urtetik gorakoaren proportzioa, aldiz, handiagoa da zuzeneko obrak Internet bidez ikusteko orduan, erakusketa digitalak egiterakoan, beste artista profesional batzuen edukiak trukatzekoan eta bisita birtualak egiterakoan.


18. grafikoa. **Praktika bakoitza lehen aldiz edo lehen baino gehiagotan egiten duten pertsonen ehunekoa, sexuaren arabera**

(emakumeak, kolore ilunak eta barra zabala)



19. grafikoa. **Praktika bakoitza lehen aldiz edo lehen baino gehiagotan egiten duten pertsonen ehunekoa, adinaren arabera**

(30 urtetik beherakoak, kolore ilunak eta barra zabala)




Azkenik, azken datu-bilketa honetan konfinamendu osteko joera berrietan sakondu da, eremu digitaletik harago (20. grafikoa). Ildo horretan, aldaketak batez ere epe motzekoak izango diren ustearen eta aldaketak epe luzekoak izango direnaren arteko aldea nabarmena den hiru jarduera hautematen dira:

- Zuzeneko arte ekitaldietara joatea.
- Zinemara joatea.
- Museoetara joatea.

Kasu horietan, Covid-19ak izandako eragina garrantzitsutzat jotzen da argi eta garbi, eta behin-behinekoa izango dela uste da (epe laburrekoa). Izan ere, ohiko ohituretara bueltatzeko joerak pandemiak eragindako aldaketek eta salbuespen egoerek baino pisu handiagoa izango dutela uste da. Nahiz eta eragina arintzen joango dela uste, hori bai, irismen luzekoa izatea ere aurreikusten da.


20. grafikoa. **Covid-19aren eragina ohitura-aldaketan, 1etik (ezer ez) 4ra (asko) bitarteko eskalan, epe laburrean eta luzean**



Arina izanagatik, kasu guztietan aurreikusten da inpaktuen bat izatea, eta, beraz, inpaktua globala izango dela uste da, aldeak egongo diren arren. Inpaktu txikiagoak aurreikusten diren kasuetan (parte-hartze aktiboa/sortzailea, produktuen erosketa, kultura-materialaren trukatzeari sareetan eta elkarteetan parte hartzea), inpaktuen balorazioa ez da oso desberdina irismen laburrekoak edo luzeak izango diren ustearen arabera.

21. eta 22. grafikoetan iritziok sexuaren eta adinaren arabera jasota daude.

21. grafikoa. **Covid-19aren eragina ohitura-aldaketan, 1etik (ezer ez) 4ra (asko) bitarteko eskalan, epe laburrean eta luzean, sexuaren arabera**



22. grafikoa. **Covid-19aren eragina ohitura-aldaketan, 1etik (ezer ez) 4ra (asko) bitarteko eskalan, epe laburrean eta luzean, adinaren arabera**



Txosten honetako 3.1 ataleko emaitzetan ikus daitekeen bezala kultura-ohitura zabalagoak eta biziagoak dituzten emakumeek, inpaktuak oro har garrantzitsuagoak izango direla aurreikusten dute, baina, bereziki, lehen aipatutako jardueri dagokienez: zuzeneko arte ekitaldietara, zinemara, erakusketetara eta museoetara joatea, eta erosketa digitalak. Gainera, gizonekin alderatuta, epe laburrera eta epe luzera aurreikusitako inpaktuen arteko aldea txikiagoa izango dela uste dute: inpaktuen garrantzia berdin baloratzen dute epe laburrean eta luzean.

Adinaren arabera, nabarmentzekoa da 30 urtetik beherakoek aurreikusten dutela inpaktu handi eta nabariena, bai epe luzean bai epe laburrean, zuzeneko arte ekitaldietara eta zinemara joateari dagokionez. Kasu honetan, emakumeekin gertatzen denaren kontrara, ez dira praktikok indarrean jartzeko ohitura gehien duten kolektiboa.

Ondorioak

Pandemian, praktikatzaile berrien kopuruagatik eta ohiturak areagotzeagatik gehien nabarmendutako praktikak honako hauek dira: **hitzaldiak, tutorialak eta hitzaldiak sare sozialen bidez eskuratzea eta eduki kulturalako plataformetara ordainpeko harpidetzen bidez sartzea**. Gainera, podcastak entzutearena goraldian dagoen praktika bat da, praktikatzaile berri gehien dituen delarik.

Praktika digital gehienetan hautematen da dagoeneko ohiko bihurtu direla edo etorkizunean horrela izango direla, zalantza handiagoak eragiten dituzten bitan izan ezik: zuzeneko ekitaldiak Internet bidez ikustea eta erakusketa, museo edo ondare-guneen bisita birtualak egitea. Azken batean, bi praktika horiek modu digitalean egitea ohiz kanpokotzat jotzen da, eta, behin normaltasuna berreskuratuta, ohiko bideetara itzultzeko joera hautematen da, hau da, aurrez aurreko jardueretara. Hain zuzen ere, bi praktika horiek izatea iritzi-desberdintasunik handienak eragiten dituztenak aldaketa behin-behinekoa izan den edo ohiko bihurtuko den azaltzeko orduan, honakoaren adierazgarri da: **pertsona batzuentzat ez dute interesik sortzen bestelako eraldaketarik eskaini gabe soilik praktika digitalizatzen duten esperientziek**. Kasuotan, horrenbestez, presentzialtasunak berebiziko garrantzia du.

Gai digitalean etorkizunari buruzko joerei dagokienez, ikusten da –kasu gutxi diren arren– era transbertsalean hazi dela «Ez dakit» erantzuten dutenen edo zuzenean erantzuten ez dutenen ehunekoa (% 9,3tik % 13,1 era). Horrek normaltasunaren itzuleraren gaineko **ziurgabetasuna handitu** dela adierazten du.

Sexuen eta adinaren arabera, nabarmentzekoa da, lehenik eta behin, **emakumeak** direla **praktika digitalekin gehien esperimentatzen ari direnak**: gehiengo dira praktikatzaile berrien eta ohiturak areagotzen dituztenen proportzioan. Bigarrenik, adinaren arabera, aldaketa zuzentzen dutenak 30 urtetik beherakoak dira kasu batzuetan, eta, beste jarduera batzuetan, 30 urtetik gorakoak: 30 urtetik beherakoak gehiago dira eduki kulturalako plataformetara sartzeko praktiketan, sare sozialen bidezko prestakuntzan eta sorkuntza propioen trukean. 30 urtetik gorakoaren proportzioa, aldiz, handiagoa da zuzeneko obrak Internet bidez ikusteko orduan, erosketa digitalak egiterakoan, beste artista profesional batzuen edukiak trukatzekoan eta bisita birtualak egiterakoan.

Azkenik, Covid-19ak parte-hartze kulturean duen eraginaren balorazioa ikuspegi orokorrago batekin eginda, hautematen da **zuzeneko arte ekitaldietara, zinemara eta museoetara joateko orduan Covid-19ak eragindako aldaketak garrantzitsutzat jotzen direla, baina, batez ere, epe laburrean**.

Kontuan hartu behar da, kasu guztietan, arina izan arren, inpaktua egon dela (epe laburrean edo luzean). Inpaktu txikiak parte-hartze aktiboan, produktuen erosketan, sare sozialetako kultura-trukean eta elkarteetako parte-hartzean aurreikusten dira. Kasu horietan, gainera, inpaktua antzera baloratzen da epe laburrean eta luzean.

Sexuen eta adinaren arabera, nabarmentzen du **emakumeek aurreikusten dutela beren ohituretan inpaktuak garrantzitsuagoak izango direla, eta ez hain ezohikoak** (epe laburreko eraginaren balioespena epe luzekoaren aldean txikiagoa da). Adinaren arabera, inpaktu handienak eta epe luzera nabarmenenak 30 urtetik beherakoek aurreikusten dituzte, zuzeneko arte ekitaldietara eta zinemara joateko praktiketan zehazki.

3.3. Aldaketaren pertzepzio subjektiboa

Xedea

- Aldaketaren pertzepzio subjektiboa aztertzea.
- Aldaketaren arrazoi subjektiboak aztertzea.
- Emaita subjektiboak eta emaitza objektiboak erkatzea.

Garrantzitsua da gogoratzea datuak interpretatzeko orduan kontuan hartu behar dela Panelak, dituen helburu nagusiak direla eta, ez duela lagin adierazgarri edo ausazko batekin lan egiten. Hori dela eta, emaitzak ezin dira demoskopikoki interpretatu, biztanleria osora estrapolatu daitezkeela pentsatuta. Izan ere, lagina gutxieneko ohiko kultura-kontsumo bat duten pertsonen soilik osatzen dute.

Horrenbestez, datuak ez dira era hertsian eta erabatekotzat jota interpretatu behar; aitzitik, joera gisa ulertu behar dira, betiere, gainera, lagina osatzen duten pertsonen profilaren barruan.

Zer neurtzen da?

Azaldutako xedeetarako, ezinbestekoa da neurri hauek kontuan hartzea:

- **Ibilbide subjektiboa:** norbanako bakoitzak bere aldaketa-ibilbidearen gainean duen pertzepzioa —hots, igo, mantendu edo jaitsi egin den—. Modu horretan, aldaketaren inguruko pertzepzio orokor bat neurtzen da, parte-hartze hartzailearen, sortzailearen eta digitalaren artean bereizketarik egin gabe. Pertzepzio subjektibo bat da, norbanako bakoitzak hautematen duena.
- **Arrazoi subjektiboak:** parte-hartze maila orokorra igo, mantendu edo jaitsi izana justifikatzeko norbanakoek emandako arrazoiak.
- **Ibilbide objektiboa:** parte-hartze hartzailearen, sortzailearen eta digitalaren ibilbideak deskribatzeko aurrez erabilitako neurriak berriro aztertzen dira, pertzepzio subjektiboarekin erkatze aldera. Aurreko atalean «ibilbideak» aipatu direnean ez da erabili «objektiboak» etiketa (ibilbideok datu-konbinazioaren eta kalkuluaren bitartez definitzen direlako, ez norberaren pertzepzio zuzenaren bitartez), baina, kasu honetan, erantsi egin da etiketa, eta, horri esker, bi ikuskerak bereiz daitezke.

Datuak datu-bilketa pareka erakusten dira: bigarren datu-bilketako datuen artean sartu dira soilik lehen datu-bilketan ere parte hartu zuten pertsonenak, hirugarreneko datuen artean bigarrenengan ere parte hartu zutenenak, eta abar. Kontuan hartu beharra dago datu-bilketa bakoitzean ordezkapen-tasa bat dagoela: parte-hartzaile batzuek ikerketa uzten baitute. Horrela, informazio-galera optimizatzea lortzen da, datu-bilketa guzti-guztietan parte hartu duten pertsonen datuak bakarrik hartuko balira, informazio-galera areagotu bailitzateke.

Nola neurtzen da?

Ibilbide objektiboa aurreko atalean bezalaxe neurtzen da (indizeak kalkulatu, datu-bilketen arteko aldeak ikusi eta igoera, mantentze eta jaitsiera kategorietan birkodetzea egiteko prozesuaren emaitza).


Ibilbide subjektiboa aldagai jakin bakarra erabiliz neurtzen da, zeinaren arabera inkestari erantzuten ziotenek datu-bilketen artean zuten parte-hartze mailaren bilakaera balioesten baitzuten. Hala, beren ustez, parte-hartze maila igo, jaitsi edo mantendu egin ote zuten adierazten zuten.

Arrazoi subjektiboek arrazoi-zerrenda batetik ateratako bi galderarekin ere badute zerikusia. Lehenengoan, beren ustez, eragina duten arrazoi guztiak hautatzen dituzte –bat baino gehiago hauta dezakete–. Bigarrenengoan, arrazoi nagusi irizten dutena aukeratzen dute.

Emaizak eta eztabaida

Pertzepzio subjektiboa kultura-jardueraren beherakadaren usteak markatzen du, nahiz eta datu objektiboek (3.1 atala) igoera txiki bat eta mantentzearen pisu nabarmena erakusten zuten. Ildo horretan, pandemiaren testuinguruak, dagoeneko hain murriztailea ez bada ere, muga pertzepzioa markatzen jarraitzen duela susmatzen da.

23. grafikoa. **Datu-bilketen arteko (norberak hautemandako) aldaketa-ibilbide subjektiboak (%)**



Oharra: Oraingo honetan ez dira kontuan hartuko hirugarren datu-bilketatik berreskuratutako Paneleko parte-hartzaileak, irizpide bateratuari eustea helburu.

Elkarriketatuek emandako arrazoiek aurreko datu-bilketetan markatutako eredu egonkorra, zazpigarren datu-bilketan hautsi zen Covid-19aren efektuaren ondorioz. Bada, oraingo datu-bilketan «normaltasun» hori nabarmen berreskuratu da, partzialki bada ere (8. taula, ehunekoen baturak % 100eko muga gainditzearen zioa pertsona bakoitzak arrazoi bat baino gehiago hautatzeko aukera izatea da).

Zazpigarren datu-bilketan, pandemiaren eragina zuzenean jasoz, «Beste batzuk» kategoria zegoen aipatutako arrazoiaren artean lehen postuan (% 63,1). Oraingo datu-bilketan, arrazoi hori azken postuetan kokatu da berriro. Hori bai, seigarren datu-bilketarekin alderatuta, dagoeneko ez du hain garrantzi txikia (% 21 eta % 4,2, hurrenez hurren).

8. taula. Parte-hartze kulturalaren bilakaeraren arrazoi subjektiboak. Seigarrenetik zortzigarrenera bitarteko datu-bilketak

Arrazoaia	6. datu-bilketa	7. datu-bilketa	8. datu-bilketa	Berreskurapen %, seigarren datu-bilketako zifra erreferentziatzen hartuta
Daukadan denbora	%80	%36,4	%59	%73,8
Zenbait erantzukizun pertsonal (familia barneko zaintza, ikasketak, eta abar)	%62,6	%43,3	%56,4	%90,1
Denbora librean ditudan beste interesak (lagunak, beste zenbait zaletasun...)	%66,3	%35,8	%61,5	%92,8
Parte-hartzea partekatzeko lagunak	%51,1	%25,1	%37,4	%73,2
Eskaintza kulturalarekiko dudak interesa	%50	%24,1	%35,4	%70,8
Jarduera kulturalarekiko gogobetetasuna	%36,8	%12,8	%22,6	%61,4
Gomendioak (lagunak, prentsa, Internet, eta abar)	%41,1	%4,6	%26,2	%63,7
Nire inguruan dagoen eskaintza kulturala	%50,5	%55,6	%53,8	%106,5
Eskuragarri ditudan jarduerak kulturalari buruzko informazioa	%42,1	%24,6	%40	%95,0
Jardueren prezioa	%41,6	%16,6	%39,5	%95,0
Abonuak, deskontuak, kultur txartelak...	%20,5	%11,8	%20	%97,6
Gauza bera Internet bidez egiteko aukera	%11,1	%15,5	%12,3	%110,8
Beste batzuk	%4,2	%63,1	%21	%500,0


Pandemiaren aurreko azken datu-bilketan, denbora erabilgarria zen oraindik ere Paneleko parte-hartzaileek beren parte-hartze kulturalaren bilakaera azaltzeko emandako arrazoi nagusia. Orain, dagoeneko zazpigarren datu-bilketa egin zenean baino murrizketa gutxiago izanda, arrazoi horiek aisialdiko beste interesen (% 61,5), erantzukizun pertsonalen (% 56,4) eta hurbileko kultura-eskaintzaren (% 53,8) antzeko garrantzia du. Ildo horretan, azken arrazoi horiek seigarren datu-bilketan zuten pisua berreskuratu dute, baina ez da gauza bera gertatu denbora erabilgarriarekin, azpitik geratu baita (% 59 egun eta % 80 pandemia baino lehen).

Aurreko pisua berreskuratu ez duten arrazoiaren artean, jarduerak kulturalarekiko gogobetetasuna, gomendioak, eskaintza kulturalarekiko interesa eta parte-hartzea gauzatzeko lagunak nabarmentzen dira.

Inkestatutako pertsona bakoitzak norberak hautemandako aldaketa-ibilbidearen arabera emandako arrazoi nagusia kontuan hartuta (24. grafikoa), honako hau nabarmentzen da:

- Ingurunean kultura-eskaintza izateko aukera hazkunde-pertzepzioarekin lotutako arrazoi bat izan da.
- Denbora erabilgarria garrantzitsua da mantentzeen zein igoeren eta jaitsieren berri emateko, eta hainbat norabidetan ondorioak izateko gaitasuna du.
- Pandemiaren murrizketak, «Beste batzuk» kategorian jasotakoak, jaitsierekin lotutako arrazoi bat izan dira.
- Kultura-jardueraz bestelako interesak ere nabarmentzen dira mantentze-ibilbide bat nabarmendu dutenen artean.

24. grafikoa. **Inkesta bete dutenek adierazten dituzten arrazoi nagusiak beren aldaketa-ibilbide subjektiboaren arabera (%)**



Ondorioak

Pertsonok, kultura-praktika hartzaileak egiteari buruzko datuak pixka bat hobetu diren arren, beren parte-hartze kulturala jaitsi egin dela hautematen dute. Norberak hautemandako beheranzko ibilbidea % 56,7koa da, mantentzekoa % 32,5koa eta igoerakoa % 10,8koa. **Pertzepzio subjektiboaren eta datu objektiboen arteko aurkakotasun** horrek erakusten du, murrizketak dagoeneko arinagoak izan arren, pandemia testuinguruak mugak izatearen pertzepzioa sortzen duela.

Baliteke denboraren joanak eta normaltasunera itzuli ez izanak larritu izana mugei buruzko pertzepzio hori: objektiboki, kulturalki gehiago parte hartu da, baina, aldiz, sentsazioa ezkorra da, eta balizko **neke psikologikoa** eragin du.

Pertsonok beren parte-hartze kulturalako ibilbideak azaltzeko ematen dituzten arrazoiei dagokienez, nabarmentzekoa da pandemiaren garrantziak behera egin duela, eta **kulturaz bestelako aisialdiko beste interesak** direla emandako arrazoi nagusia, denbora erabilgarriarekin (dagoeneko ez da faktore nagusia alde handiz), erantzukizun pertsonalekin eta ingurunean duten kultura-eskaintzarekin batera.

Pertsonok ematen dituzten arrazoiak eta euren hautemandako ibilbideak gurutzatuta, **ikusten da ingurunean kultura-eskaintza izateko aukera igoerako ibilbideekin lotzen dela**; bada, horrek bat egiten du aztertutako aldian murrizketak pixka bat altxatu izanarekin. **Pandemiak eragindako murrizketak, ordean, jaitsierako ibilbideekin lotzen dira, eta, kultura-jardueraz bestelako interesak, mantentze-ibilbideekin** (hau da, beste interesak, kenketa faktore baina, galga dira). Azkenik, denbora erabilgarria garrantzitsua da bai mantentzei, bai igoerei, bai jaitsierei dagokienez, norabide desberdinetan ondorioak izateko gaitasuna duen arrazoia baita.

Egunerokotasunaren oinarri ziren oinarritzko zutabeak kolpatu dituen Covid-19a bezalako fenomeno baten agerpenak, Panelak modu baliagarri eta baliotsuan jaso ahal izan dituen aldaketak eragin ditu, parte-hartze kulturala eta pandemiak ohitura horietan eragindako inpaktua hobeto ulertzen lagunduz.

Covid-19aren eragina bereziki gogorra eta negatiboa izan zen **parte-hartze hartzailearentzat**, eta, horren erakusle, egun apur bat baino ez da ari berreskuratzen. Izan ere, parte-hartze hartzaileak neurri sanitarioek Covid-19aren ondorioz murriztutako baldintzetan (presentzialtasuna, aglomerazioa) egiten diren jarduerak biltzen ditu gehienbat. Irakurketak eskaintzen du kontrasterik argiena aztertutako jarduera hartzaileen artean, baina baita jarduera digitalek eta, nolabait, sortzaileek ere. Ildo horretan, irakurketa aldaketarik gabe mantendu da, gainerako jarduera guztiek eragin oso handia jasan zuten bitartean lehenik eta behin, eta, bigarrenik, berreskuratzeko aukera desberdinak izan dituztenean. Zuzeneko arte ekitaldiei lotutako jarduerak dira zailtasun handienak dituztenak; ondoren, kontzertuetara, zinemara, erakusketetara eta liburutegietara joatea daude.

Begirada global batetik, jarduera sortzaileekin eta digitalekin alderatuta, Covid-19ak beren epe laburreko eta luzeko ohituren aldaketan izandako eraginari buruz parte-hartzaileek egindako balorazioa bat dator honako honetan: **zuzeneko arte ekitaldietara joaterako orduan, baina baita zinemara eta erakusketetara ere, inpaktuak garrantzitsuagoak izan dira, baina baita argiki ohiz kanpokoagoak ere** (epe laburrekoak).

Sexuaren eta adinaren arabera aldea kontuan hartuta, lehenik eta behin nabarmentzen da emakumeen artean pandemiaren eragina txikiagoa izan zela, eta, oro har, aurreko mailak gehiago berreskuratu dituztela. Adinaren arabera, ikusi da ikuskizunetara, liburutegietara eta kontzertuetara joateko ohitura 30 urtetik gorako pertsonen artean berreskuratu dela neurri handiagoan. Zinemari eta erakusketei dagokienez, berreskurapena zertxobait handiagoa da 30 urtetik beherakoan artean.

Parte-hartze digitalari dagokionez, pandemiaren aurreko datu-bilketako Paneletik identifikatzen da dagoeneko goranzko joera. **Covid-19aren agerpenak indartu egin zuen, eta gaur egun ere mantentzen da.** Etorkizunerako galdera garrantzitsuetako bat joera horrek izango duen bilakaerarekin lotuta dago: sabaia jo du jada? Mantendu egingo da? Murriztu egingo da normaltasuna itzultzearekin batera? Bide beretik igotzen jarraituko ote du? Oraingoan, argi dirudi Covid-19a orain arte gauzatzen ari zen parte-hartze digital maila finkatzen ari dela.

Era berean, ikusi da ikus-entzunezkoetan streaming-a eta edukien arabera ordainketa nagusitu egin direla, papera irakurketaren euskarri nagusi gisa mantentzen dela eta musikan streaming-a (kasu honetan nagusiki doakoa) eta euskarri mugikorra gailendu direla.

Joerei buruzko bloke espezifikoan, nabarmentzekoa da **praktika digital gehienak** (eduki kulturalako plataformak, online hitzaldi eta tutorialetarako sarbidea, material artistikoaren trukea sareetan...) **jada ohikotzat hartzen direla** edo, bestela, laster ohiko bihurtuko direla hautematen dela. Aldiz, iritzi-desberdintasunak handiagoak dira **zuzeneko arte ekitaldietako eta erakusketa, museo edo ondare-guneetarako sarbide digitalaren** gainean, praktika digital horiek ezohikoak izan direla uste baitute pertsona ugariak. Hala ere, kasu horietan ere badira etorkizunean ohikoak izango direla uste duten pertsonak, nahiz eta oraingoan ohikoak ez izan.

Sexuaren eta adinaren arabera, agerian geratu da, lehenik eta behin, emakumeak direla ohitura digitalekin gehien esperimentatzen dutenak: praktikatzaile gehiago dira eta/edo intentsitate handienekoak. Bigarrenik, agerian geratu da aldeak daudela 30 urtetik beherakoen eta gorakoen artean lehentasun digitaletan. 30 urtetik beherakoak gehiago dira eduki kulturalako plataformetarako sarbidean, sare sozialen bidezko prestakuntzan eta sorkuntza propioen trukean; eta 30 urtetik gorakoak gehiago dira zuzeneko obren Internet bidezko sarbidean, erosketa digitaletan, beste artista profesional batzuen edukien trukean eta bisita birtualetan.

Praktika artistiko amateurrei dagokienez, nabarmendu behar da murrizketa handieneko pandemiaren aldian gorakada nabarmena izan ondoren, **orain pandemiaren aurrekoak baino maila txikiagoetara ere egin dutela atzera**. Parte-hartze sortzailea ahuldu egin da, eta **ez-praktikatzaileen kopuruak gora egin du eta intentsitate handiko ohiturak galtzen ari dira** (aldi berean praktika bat baino gehiago egitea).

Emaitzak sexuaren eta adinaren arabera aztertuta, joerek honakoa adierazten dute: praktikatzaileen galera gizonen eta 30 urtetik beherakoen artean, eta parte-hartze sortzailearen intentsitate galera emakumeen eta 30 urtetik gorakoen artean.

Azkenik, pertsonen pertzepzio subjektiboari dagokionez, kultura-praktika hartzaileak egiteari buruzko datuak pixka bat hobetu diren arren, beren parte-hartze kulturala jaitسي egin dela hautematen dute herritarrek. Pandemiak, nahiz eta azterketa-aldian murrizketa gutxiago indarrean egon, **mugaketen pertzepzioa** sortzea ekarri du, baita parte-hartze kulturalako mailak objetiboki handitu direnean ere. Horrek ezkortasuna eragiten duen balizko **neke psikologiko** baten presentzia iradokitzen du.

Bestalde, pertsonok euren hautemandako ibilbideei buruz ematen dituzten arrazoiak kontuan hartuta, **ikusten da ingurunean kultura-eskaintza izateko aukera igoerako ibilbideekin lotzen dela**; bada, horrek bat egiten du aztertutako aldian murrizketak pixka bat altxatu izanarekin. **Pandemiak eragindako murrizketak, ordea, jaitsierako ibilbideekin lotzen dira, eta, kultura-jardueraz bestelako interesak, mantentze-ibilbideekin**; hau da, galga gisa jokatzeko dute gehiago faktore garbiki negatibo baino.

Denbora erabilgarriaren faktorea, pandemiaren aurreko datu-bilketetan nagusiki argudiatutako faktorea bazen ere, oraingo honetan kulturaz bestelako denbora libreko beste interesen, inguruko eskaintza aukeren eta erantzukizun pertsonalen parean kokatzen da. Emaitzek erakusten dute denbora erabilgarriak ondorio transbertsalak dituela bai mantentzeetan, bai igoeretan, bai jaitsieretan; hala, osotasunean hartuta indarra galdu badu ere, faktore garrantzitsua eta transbertsala da jarduera kulturalentzat.

1. ERANSKINA. TAULA OSAGARRIAK

1. taula osagarria. **Abiapuntuko parte-hartze hartzailaren batezbestekoa (seigarren datu-bilketan), aldaketa-ibilbidearen arabera**

	Batezbestekoa
Jaitsiera handia	0,2588
Jaitsiera ertaina	0,1833
Mantentzea	0,1034
Igoera ertaina	0,1253
Igoera handia	0,0848
Guztira	0,1168

2. taula osagarria. **Seigarren eta zortzigarren datu-bilketen artean egindako jarduera artistiko amateur kopuruaren konparazioa**

	6. datu-bilketako ehunekoak	7. datu-bilketako ehunekoak	8. datu-bilketako ehunekoak
Jarduerarik ez	55,7	52,1	61,1
Jarduera bat	28,4	24,2	26,4
Bi jarduera	8,2	10,3	8,3
Hiru jarduera	3,1	6,7	3,1
Lau jarduera	3,1	4,6	0,5
Bost jarduera edo gehiago	1,5	2	0,5

2.1. taula osagarria. **Seigarren eta zortzigarren datu-bilketen artean egindako jarduera artistiko amateur kopuruaren konparazioa, sexuaren arabera**

	Emakumezkoak			Gizonezkoak		
	6. datu-bilketako ehunekoak	7. datu-bilketako ehunekoak	8. datu-bilketako ehunekoak	6. datu-bilketako ehunekoak	7. datu-bilketako ehunekoak	8. datu-bilketako ehunekoak
Jarduerarik ez	51,5	52,6	56,3	60,8	51,5	66
Jarduera bat	32,0	22,7	30,2	23,7	25,8	22,7
Bi jarduera	8,2	11,3	8,3	8,2	9,3	8,2
Hiru jarduera	3,1	6,2	4,2	4,1	7,2	2,1
Lau jarduera	3,1	3,1	-	2,1	6,2	1
Bost jarduera edo gehiago	2,1	4,1	1	1,0	-	-

2.2. taula osagarria. **Seigarren eta zortzigarren datu-bilketen artean egindako jarduera artistiko amateur kopuruaren konparazioa, adinaren arabera**

	30 urtetik beherakoak			30 urtetik gorakoak		
	6. datu-bilketako ehunekoak	7. datu-bilketako ehunekoak	8. datu-bilketako ehunekoak	6. datu-bilketako ehunekoak	7. datu-bilketako ehunekoak	8. datu-bilketako ehunekoak
Jarduerarik ez	54,4	42,9	67,1	57,7	58,1	57,5
Jarduera bat	27,8	27,3	17,8	27,9	22,2	31,7
Bi jarduera	5,6	16,9	12,3	10,6	6,0	5,8
Hiru jarduera	4,4	5,2	1,4	2,9	7,7	4,2
Lau jarduera	5,6	6,5	1,4	1,0	3,4	0,8
Bost jarduera edo gehiago	2,2	1,3	-	-	0,9	0,8

3. taula osagarria. **Abiapuntuko parte-hartze digitalaren batezbestekoa (seigarren datu-bilketan), aldaketa-ibilbidearen arabera**

	Batezbestekoa
Jaitsiera handia	0,5667
Jaitsiera ertaina	0,4371
Mantentzea	0,3250
Igoera ertaina	0,3238
Igoera handia	0,2829
Guztira	0,3697

4. taula osagarria. **Parte-hartze aktiboko jarduerarik ohikoenak sexuaren arabera seigarren eta zortzigarren datu-bilketen artean (ehunekoak jarduera azken sei hilabeteetan egin izana adierazten du**

	Emakumezkoak			Gizonezkoak		
	6. datu-bilketako ehunekoak	7. datu-bilketako ehunekoak	8. datu-bilketako ehunekoak	6. datu-bilketako ehunekoak	7. datu-bilketako ehunekoak	8. datu-bilketako ehunekoak
Musika-tresna bat jotzea	9,3	8,2	6,3	14,4	20,6	13,4
Idaztea	13,4	11,3	10,4	11,3	12,4	9,3
Dantza eta baleta	9,3	12,4	7,3	3,1	3,1	2,1
Argazkiak egitea (mintegiak, ikastaroak)	10,3	14,4	5,2	11,3	18,6	5,2
Margotzea edo marraztea	5,2	13,4	10,4	2,1	9,3	3,1
Beste arte plastiko batzuk	11,3	10,3	7,3	2,1	4,1	1
Bideoak egitea (mintegiak, ikastaroak)	6,2	15,5	3,1	4,1	9,3	4,1
Beste ikus-entzunezko batzuk (diseinu grafikoa, webak, eta abar)	3,1	4,1	2,1	9,3	9,3	3,1

5. taula osagarria. **Parte-hartze aktiboko jarduerarik ohikoenak adinaren arabera seigarren eta zortzigarren datu-bilketen artean (ehunekoak jarduera azken sei hilabeteetan egin izana adierazten du)**

	30 urtetik beherakoak			30 urtetik gorakoak		
	6. datu-bilketako ehunekoak	7. datu-bilketako ehunekoak	8. datu-bilketako ehunekoak	6. datu-bilketako ehunekoak	7. datu-bilketako ehunekoak	8. datu-bilketako ehunekoak
Musika-tresna bat jotzea	16,7	19,5	11	7,7	11,1	9,2
Idaztea	11,1	11,7	8,2	13,5	12	10,8
Dantza eta baleta	7,8	10,4	6,8	4,8	6	3,3
Argazkiak egitea (mintegiak, ikastaroak)	12,2	20,8	2,7	9,6	13,7	6,7
Margotzea edo marraztea	6,7	15,6	8,2	1	8,5	5,8
Beste arte plastiko batzuk	7,8	5,2	2,7	5,8	8,5	5
Bideoak egitea (mintegiak, ikastaroak)	6,7	11,7	4,1	3,8	12,8	3,3
Beste ikus-entzunezko batzuk (diseinu grafikoa, webak, eta abar)	10	9,1	2,7	2,9	5,1	2,5

6. taula osagarria. **Parte-hartze aktiboko jarduerarik ohikoenak sexuaren arabera seigarren eta zortzigarren datu-bilketen artean (balioak azken sei hilabeteetan jarduera gutxienez behin egin izana adierazten du)**

	Emakumezkoak			Gizonezkoak		
	6. datu-bilketako ehunekoak	7. datu-bilketako ehunekoak	8. datu-bilketako ehunekoak	6. datu-bilketako ehunekoak	7. datu-bilketako ehunekoak	8. datu-bilketako ehunekoak
Filmak, telesailak edo bideoak ikustea	96,9	95,9	98	93,8	99	99
Musika entzun edo deskargatzea	78,9	73,2	73,5	83,5	81,7	84,3
Liburuak irakurri edo deskargatzea	36,1	34	20,8	52,6	47,4	13,4
Liburutegian sartzea	30,9	26,3	24,5	19,6	15,6	13,7
Kontzertuak ikustea	28,7	42,3	27,5	33,7	41,7	30,7
Ikuskizunak ikustea	14,4	18,8	16,7	6,2	19,8	16,7
Erakusketak ikustea	3,1	4,1	7,8	1	4,1	3,9

7. taula osagarria. **Parte-hartze aktiboko jarduerarik ohikoenak adinaren arabera seigarren eta zortzigarren datu-bilketen artean (balioak azken sei hilabeteetan jarduera gutxienez behin egin izana adierazten du)**

	30 urtetik beherakoak			30 urtetik gorakoak		
	6. datu-bilketako ehunekoak	7. datu-bilketako ehunekoak	8. datu-bilketako ehunekoak	6. datu-bilketako ehunekoak	7. datu-bilketako ehunekoak	8. datu-bilketako ehunekoak
Filmak, telesailak edo bideoak ikustea	98,9	100	100	92,3	95,7	97,4
Musika entzun edo deskargatzea	90	90,9	87,2	73,5	68,1	73,8
Liburuak irakurri edo deskargatzea	42,2	37,7	20,5	41,3	42,7	15
Liburutegian sartzea	26,7	22,1	19,2	24	20,2	19
Kontzertuak ikustea	31,8	48,1	29,5	30,7	37,9	28,6
Ikuskizunak ikustea	11,1	18,7	16,7	9,6	19,7	16,7
Erakusketak ikustea	2,2	2,6	5,1	1,9	5,2	6,3

2. ERANSKINA. ALDAGAIEN KODETZE

Aldagaia eta galdetegiko erreferentzia	Deskribapena
Adina G2	Aldagai jarraitu bat da, jaiotze-urtearen arabera eraikia. Gogoan izan behar da laginak, hasiera batean, 18-39 urte bitarteko norbanakoak hartzen dituela barne.
Sexua G1	Aldagai bitarra da, non 0 zenbakiak gizona identifikatzen duen eta 1 zenbakiak emakumea. * Ez da erabiltzen aldagetaren analisietan, denboran zehar aldatzen ez den aldagai finkoa baita.
Udalerriaren tamaina G5	4 kategorien arteko aldea: 1. <5.000 2. 5.000 a 20.000 bitartean 3. >20.000 4. Hiriburuak
Seme-alabekin bizitzea G6a	G6 aldagaia birkodetuta eraiki da: seme-alabekin bizi direnak (1. kategoria) eta seme-alabekin bizi ez direnak (0 kategoria). Bizikidetzatza-moduen aldagaiaren bidez heltzen zaio seme-alaben gaiari. * 3. jasoaldira arte baino ez da erabili.
Seme-alabak izatea G6b	Seme-alaba kopuruaren inguruko galdera zuzena. * 3. jasoaldian gehitu zen.
Amaitutako ikasketa-mailak G7	Guztira 8 kategoria daude, amaitutako ikasketa-mailarik baxuenetik altuenera antolatuta.
Hizkuntza G10	Inkestatuak erosoan darabilen hizkuntzari egiten dio erreferentzia. Euskaratik (1) gaztelaniara (3) doa; «biak» (2) aukera ere badago. «Beste batzuk» aukera kendu egin da (kasu bakarra zegoen).
Soldata/lan bat izatea G12	G12 aldagaia 2 talde handitan birkodetuz eraikitzen da: ekonomikoki mendekoak (1 zenbakiarekin kodetua: ikasleak, langabetuak eta desgaitu iraunkorrak) eta independenteak (0 zenbakiarekin kodetua: beren konturako edo besteren konturako langileak).
Diru-sarrerak G14a	Hileko diru-sarreraren 6 tarte, diru-sarrerarik gabe mailatik 2000 baino gehiagoko diru-sarrerak mailara arte.
Zailtasun ekonomiko subjektiboa G14b	1etik 10era, txikitik handira hilabete bukaerara iristeko zailtasunak neurtzen ditu.

Oinordean hartutako kultura-kapitala	Hurrengo aldagaiak batuz eraikitzen da, horien neurketa estandarizatuz, eta Otik 1 era mailakatuz: • Liburuak etxean hartzaroan • Musika-tresnak hartzaroan • CD-grabagailua, irratia, musika-ekipoa edo binilozko diskoak hartzaroan • Idatzizko prentsa etxean hartzaroan • Museo edo galerietara, antzokira, ikuskizunetara, dantzara, kontzertuetara, liburutegietara edo zinemara joatea hartzaroan. • Hartzaroko kultura-jarduerak: irakurtzea, marraztea, istorioak idaztea, musika jotzea. Maiztasun-aldagaiak 5 kategoriekin daude osatuta: Sekula ez, behin, bitan, 3-5 aldiz eta 5 baino gehiagotan. Maila bakoitza 0 eta 1 bitarteko balioak emateko mailakatzen da. Beste aldagaiak birkodetzearen ondorio dira, 0-1 bitarteko kontsumo-mailaren arabera * Ez da erabiltzen aldaketaren analisisetan, denboran zehar aldatzen ez den aldagai finkoa baita.
Amaren eta aitaren ikasketa-maila G15a eta G15b	Ikasketa-maila aldagaia bezalaxe. Ez da modu sistematikoan barneratzen; izan ere, 1. jasoaldian ikusi zenez, haren eragina zeharkakoa zen batez ere, oinordean hartutako kultura-kapitalaren arabera. * Ez da erabiltzen aldaketaren analisisetan, denboran zehar aldatzen ez den aldagai finkoa baita.
Denbora librea G22 G23	1 etik (asti gutxi) 4ra (asko), denbora librea neurtzen du aste barruan (G22) edo asteburuan (G23).
Kultura-jardueraren garrantzia G24	1-10 bitarteko eskala batean norbanakoarentzat kultura-jardueretan parte hartzeak duen garrantzia neurtzen du.
Motibazio kultural nagusia G27	Kontsumo kulturalerako motibazio ezberdinak neurtzen dira: 1. Sentipen berriak bizitzea, egunerokotasunetik irtetea (emozionala) 2. Nire ezagutza hobetzea (kulturala) 3. Pertsona gisa errealizatzea. Nire interes eta premia pertsonalak asetzea (sinbolikoa) 4. Esperientzia partekatzea, nire inguruko jendearekin harremanetan egotea (soziala) Dikotomizatu egiten da, batera birkodetuz, alde batetik, beharrian sozialak eta emozionalak (1) eta, bestetik, beharrian sinboliko eta kulturalak (2).

Zaletasun eta okupazio alternatiboak G29	0-1 bitartean aldatzen den indize bat da (gutxiagotik gehiagora), beste zaletasun edo okupazio batzuei eskainitako denboraren arabera eraikia. Bateraezinak: • Kirola • Bideo-jokoak • Etxeko zereginak Bateragarriak: • Gastronomía • Turismoa • Lagunak
Asoziazionismoa G54	Kultura-elkarteren batean duen parte-hartzeari buruzko informazioa jasotzen da: 1. Bakar batean ere ez 2. Batean 3. Bat baino gehiagoan
Kultura-abonua G44	Jarduera/ekipamendu baterako kultura-abonuren bat izatearekin ala ez izatearekin lotutako informazioa jasotzen da: 0. Ez 1. Bai
Ibilbide subjektiboa	Inkesta bete duenak berak aurreko jasoaldiarekin alderatuz berarengan hautematen duen bilakaera-ibilbidea jasotzen da. Parte-hartze maila orokorra begiratzen da. 3 kategoria ditu: Nire parte-hartze kulturala jaitsi, mantendu edo igo egin da.
Arrazoi subjektiboak (Hautaketa anizkuna + arrazoi nagusia)	Jasoaldien artean kultur arloko parte-hartzean izan den bilakaerarekin lotutako arrazoiaren zerrenda bat da. Norberak hautemandako ibilbideari buruz galdetzen da. Norbanakoek garrantzitsutzat jotzen dituzten arrazoiak modu anizkoitzean hautatzeaz gain, beren ustez arrazoi nagusia dena ere hautatzen dute.
Parte-hartze sortailea	0-1 bitarteko indize bat da (gutxiagotik gehiagora), burutzen diren kultura-jardueren kopurua neurtzekoa. Guztiek dute garrantzi bera. Aldagai dikotomikoak dira. Honatz indizean sartzen diren aldagai/jarduerak: • Idaztea • Margotzea • Arte plastikoak • Argazkigintza*2. jasoaldian ez zen sartu; izan ere, aldagaiak ehuneko anomalo bat hartu zuen, interpretazioa alboratzen zuena. • Bideoa • Ikus-entzunezkoak • Bertsolaritza • Antzerkia • Dantza • Musika • Beste batzuk

Parte-hartze hartzailea	0-1 bitarteko indize bat da (gutxiagotik gehiagora), indizean garrantzi bera duten aldagaietatik abiatuz kontsumoaren intentsitatea neurtzekoa. Honakoak dira aldagaiak: • Irakurritako liburu kopurua • Ikusi-entzundako kontzertu kopurua • Zinemara joateko maiztasuna • Ikuskizunetara joateko maiztasuna • Erakusketetara joateko maiztasuna Maiztasun-aldagaiak 5 kategoriekin daude osatuta: Sekula ez, behin, bitan, 3-5 aldiz eta 5 baino gehiagotan. Maila bakoitza 0 eta 1 bitarteko balioak emateko mailakatzen da. Beste aldagaiak birkodetzearen ondorio dira, 0-1 bitarteko kontsumo-mailaren arabera.
Kontsumoaren aniztasuna / Orotariko kultura	0-1 bitarteko indize bat da (gutxiagotik gehiagora), indizean garrantzi bera duten aldagaietatik abiatuz kontsumoaren Aniztasuna neurtzekoa. Aldagai dikotomikoak dira (bai/ez). Honakoak dira aldagaiak: • Zinema • Liburuak • Kontzertuak • Erakusketak • Zirkua • Haurrentzako antzerkia • Antzerkia • Dantza • Musika • Bertsolaritza • Magia • Literatura-jaialdia • Opera
Parte-hartze digitala	Aldagai dikotomikoetatik abiatuz (bai/ez) 0-1 bitartean kontsumo digitala neurtzen duen indize bat da, eta aldagai hauek hartzen ditu kontuan: • Internetez musika entzun edo deskargatzea • Internetez liburuak irakurri edo deskargatzea • Internetez telesailak, filmak edo bideoak ikustea • Internetez ikuskizunak ikustea • Internetez kontzertuak ikustea • Internetez erakusketak ikustea • Internetez liburutegian sartzea
Ibilbide objektiboa (Jasoaldien arteko aldea, jarraitua)	Parte-hartze hartzailerako, sortzailerako eta digitalerako kalkulatzen da. Jasoaldi bateko eskalen emaitzei aurreko jasoaldiko emaitzak kentzetik lortutako emaitzari dagokio. Prozesua dagokion atalean zehazten da.
Ibilbide objektiboa (Jasoaldien arteko aldea, kategorien arabera)	Jasoaldien arteko aldea (Jarraitua) 5 kategoriatan birkodetzen da: lgoera (nabarmena edo neurrizkoa), mantentzea eta jaitsiera (nabarmena edo neurrizkoa). Prozesua dagokion atalean zehazten da.